

Euskerearen Nazinoarteko Eguna, begiak zabaltzeko atxakirik aiposea

Euskerearen aldeko ainbat ekitaldi antolatu dabe eskualdean, bai erakunde ofizialek, bai zenbait ikastetxek, eta baita euskalgintzako ainbat eragilek be. Euskera alkarte batzuek, ostera, euskeraren egunak danak dirala uste dabe eta ez dabe ezer berezirik antolatu gaurko. Erabagi orixe artu dau, esaterako, 25. urteurrena ospatzen ari dan Euskal Errian Euskeraz alkarteak.

Euskeraren Nazinoarteko Eguna dala eta, ekitaldi ugari antolatu dabe gaurko, eskualdeko ainbat gunetan. Esaterako, ikastetxeek tarte zabala eskaini deusie euskereari. Izkuntza Normalkuntzako Batzordek Euskal Kultura eta izkuntzeari lotutako ekitaldi ugari antolatu dabe, adin ezbardinetako ikasleai zuzenduta.

Euskera alkarterik geienek, ostera, ez deusie aparteko garrantzirik eskaini egun jakin orri. Ganera, euskerearen egoerea ikusita, ez dagoz ospakizunetarako, Eulate Zilonizaurrekoetxea Euskal Errian Euskerazko kidearen esanetan, euskereak bizi dauen egoera oso tristea da. “Ezkuntzan emon bear dira leenengo aurrerapausoak, eta gaur ikusten da eskoletatik urteten daben ume askok ez dabela euskaldun urteten, eta euskaldun urteten dabenetarik askok ez dabela euskerea euren izkuntzatzat artzen; ez dabela erabilten. Administrazioeok be ez dabe euskerearen alde ezer egiten. Osasun zentroetan, justizian, udaletxe askotan, ez da euskerarik erabilten, eta orrela normala da errian dagoan egoerea. Durangon, oso gune konkretuetan baino ez da euskeraz entzuten”, dino.

Geroago eta geiago eztabaidatzen dan gaia ei da izkuntza eskubideena eta ofizialtasunarena, baina utsune orren alde lan egiteko kontzientzia bear dala uste dau Eulatez. “Euskerearen egoerea txarra dala onartzen dabe agintariek, baina Osakidetzan, orain urte bi egin ziran lanpostu guztietarako, ez zan euskerea derrigorrezkotzat artzen. Bertora etorri ziran sendagileai erdaldunak izateko aukera eskaini jaken”, kexatu da.

Eskualdean, Durangon, Elorrioren eta Zornotzan ditu taldeak Euskal Errian Euskeraz alkarteak, eta inguru orretan leentasuna osasun zentroak euskalduntzeari emon deusie. “Ezkuntzea be leentausna da, baina epe luzera. Osasun zentroai jagokenez, gauza konkretuak daukaguz epe laburrera. Tramite eta eskaera asko egin dogu, dagoaneko, baina ez deuskue jaramonik egin, eta orain sentsibilizazio eta salaketa kanpaina bat martxan ipini gura dogu”, jakinarazo deusku Eulate durangarrak.

Plangintza barria

Osasungintzearena izango da datorren kurtsoko plangintzako ardatz nagusia, baina Durangoko EGEk beste lau lerronagusi aitatu ditu bertan: izkuntza eskubideen errespetuaren eta ofizialtasunaren sentsibilizazioaren aldeko kanpaina bat egingo dau; justizia arloan, kaltetuen zerrenda bat egiteko asmoa dauka eta Udaletxeagaz artu-

emona izangura dau. "Osasun zentroa dala eta ez dala, txosten bat emon geuntsan, bina oraindino ez dogu erantzunik jaso".

Martxo eta apiril aldera, euskalgintzako maai bat sortzea da Durangoko taldearen beste elburuetariko bat, baina, euskalgintza taldeekin batu aurretik, euskera eta euskalgintzearen azterketa eta diagnostiko bat egin gura dau Durangon, urtarril aldean.

Bestalde, Durango Telebistan euskeraganako errespetu andiagoa erakusteko eskaera be sartzen da, Durangoko EHEk aurkeztu barri dauen plangintza barrian.

25. urteurrenera begira, ekitaldiak be antolatu ditu Euskal Errian Euskerazek. Abenduaren 18an, Iruñeko Anaitasunan egingo dan jaialdi erraldoiz ganera. Durangoko Azokan be izango dau presentzia. Euskal Errian Euskeraz bertansortu zala aprobeixauaz, astelenean goizean txosten bat aurkeztuko dau prentsaurreko baten, eta eguaztenean, 17.30, maai-inguru bat egongo da azokan bertan.

Orrez ganera, zapatuan, 17.00, Landakoko osasun zentroaren aurrean, enkartelada bat egiteko deialdia be luzatu dau.

TOPAGUNEAREN GOGOETA

Bestalde, joan zan zemendiaren 27an. Edabideen diru-laguntzen inguruko gogoeta aurkeztu eben Topagunea Euskera Alkarteen Federazioak eta manifestua sinatu daben ainbat euskerea, kultura eta komunikabide taldek (DHK barne) Abadiñoako Kultur Etxean.

Manifestu ori iru puntutan banatuta dago. Batetik, diru-laguntzen deialdi publikoa beranduegi kaleratzen dala salatzen dau. "Egitasmook zuzentzen doguzanontzat, oso zaila da ganorazko kudeaketa eta aurreikuspenak egitea, datuak urteko azken iruhilabetean jasoten badira", dino, besteak beste, leenengo puntu orrek.

Bigarren puntuan, "azken urteotan ebatzitako diru-laguntzen azkunderik ezak komunikabideentzat izentauta dagoan diru kopurua geroago eta geiagoren artean banatu bear izatea dakar" salatzen dabe sinatzaileek eta, testuingurua ezagututa, euskerazko edabideek erandueen laguntausn jarraitua bear dabela aldarrikatzen dabe.

Bestalde, euskerazko edabideentzako diru-laguntzak banatu orduan erabilten diran erizpideak aztertu bearra dagoala deritzo txosten orrek.

Irakurlea: Cristina Otxandategi Zedrun - Bertsolaria eta Andereñoa - (Oromiño, Iurreta)